

2193/2022 EBAZPENA, 2022ko azaroaren 9koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordeak emana. Haren bidez, ikertzaileen lan kontratazioa egiteko hautaketa-prozesurako deia egiten da, jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez honako ikerketa-proiektu hau garatzeko: “101056369 ARIES4 ERASMUS-EDU-2021-PI-ALL-INNO”.

2022ko azaroaren 7an, Nazioartekotze eta Lankidetzatza Atalak ikertzaileak kontratatzeko hautaketa-prozesurako deia egiteko eskatu zuen, jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez “101056369 ARIES4 ERASMUS-EDU-2021-PI-ALL-INNO” ikerketa-proiektua garatzeko, proiektuko lankide gisa. Ikerketa-proiektuaren ikertzaile arduraduna Martín Larraza Quintana da, unibertsitateko katedraduna, Enpresen Kudeaketa Sailari atxikia.

Kontuan harturik Langileria Kudeatzeko Ataleko buruak egin duen proposamen-txostena, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak ontzat eman duena.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak errektoretza-taldearen egitura orokorra onetsi eta bere funtzioak zehazteko 2019ko uztailaren 3an eman zuen 1420/2019 Ebazpenaren bidez eskuordetu dizkidan eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

Lehenbizikoa.- Ikertzaileen lan kontratazioa egiteko hautaketa-prozesurako deialdia onestea jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez honako ikerketa-proiektu hau garatzeko: “101056369 ARIES4 ERASMUS-EDU-2021-PI-ALL-INNO”, baita deialdiaren oinarriak ere.

Bigarrena.- Ebazpen hau Hautapen Batzordeko kideei eta Nazioartekotze eta Lankidetzatza Atalari aditzera ematea.

Hirugarrena.- Agindua ematea ebazpen hau Unibertsitatearen iragarki-ohol elektronikoan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

Iruñean, 2022ko azaroaren 9an

Francisco J. Arregui San Martín
Ikerketako errektoreordea

IKERTZAILEEN LAN KONTRATAZIOA EGITEKO HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA HONAKO IKERKETA-PROIEKTU HAU GARATZEKO: “101056369 ARIES4 ERASMUS-EDU-2021-PI-ALL-INNO”

Hauek dira deialdia arautuko duten

OINARRIAK

1.- DATU OROKORRAK

-Deialdiaren xedea: deialdi honen xedea ikertzaileak hautatzea da, ondoren lan kontratazioa egiteko, jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez, ikerketa-proiektu hau garatzeko: “101056369 ARIES4 ERASMUS-EDU-2021-PI-ALL-INNO”.

-Maila profesionala: proiektuko lankidea, batez ere ikerketa-lanetan aritzeko.

-Eginkizunak: txostenak eta analisiak egitea funtsezko jarduera-sektoreetan enpresak identifikatzeko, elkarrizketatuei, rolei eta lortu beharreko helburuei buruzko dokumentazioa sortzea, bileren aktak eta dokumentazio gehigarria egitea.

- Aztertutako enpresen kasuei buruzko txostenak egitea, bateratzea eta taldeko bazkideak nazioartean koordinatzea.

- Proiektuaren kudeaketa administratiboa eta finantzarioa: bazkideei hiru hilean behin finantza-txostenak eskatzea, aurrekontuaren betearazpenaren jarraipena egitea eta proiektuaren euskarri den dokumentazioa kudeatzea, EACEAren zuzenketa-eskaeren eta txosten ofizialen tramitazio administratiboa eta “Funding and Tenders Portal” delakoaren bidez eskatutako beste izapide batzuk egitea, koordinatzaileari proiektuaren plataforma partekatuaren kudeaketan laguntzea eta bazkideei komunikazioak egitea.

- Proiektua kudeatzeko beharrezkoa den beste edozein zeregin administratibo.

-Kontratu mota: jarduera zientifiko-teknikoen kontratuaren modalitatearen bidez egingen da kontratazioa, Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntzari buruzko 2011ko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 23bis artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

-Iraupena: mugagabea, “101056369 ARIES4 ERASMUS-EDU-2021-PI-ALL-INNO” ikerketa-proiektuari lotua.

-Lanaldi mota: osoa.

-Ordainsariak: Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikertzaileak Kontratazeko Arautegiak bere eranskinean ezarritakoak, 2022. urtera egokituak; arautegi hori 2017ko maiatzaren 3ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez onetsi zen, eta 2022ko apirilaren 12ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez aldatu.

Diru-gehigarriak ordaintzeko aukera egonen da, proiektuan ezarritako helburuak betez gero. Diru-gehigarri horiek ordaintzeko, proiektuaren arduradunak ordainketa justifikatzen duen azken txosten bat egin beharko du, eta aurrekontuan diru kopuru nahikoa izan beharko da.

-Finantzaketa: Erasmus+ 10105639 - ARIES4 - ERASMUS-EDU-2021-PI-ALL-INNO proiektua Europar Batasuneko funtsekin dago finantzatua partez.

-Argitaratzeko tokiak: Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gainera, deialdiarekin lotutako egintza eta ebazpen guztiak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitaratuko dira.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

2.1.- Hautaketa-prozesuan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritarra izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa izatea edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiar Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen batekoa.

Halaber, Espainiako, Europar Batasuneko estatuetakoa eta aipatu nazioarteko itunak aplikatzen diren eremuko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek parte hartzeko aukera dute, betiere zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere parte hartzeko aukera dute, zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude, baldin eta 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Halaber, aurreko paragrafoetan sartuta ez dauden herrialdeetakoak izan eta Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrek administrazio publikoetako lan kontratupeko langile aritzeko aukera izanen dute. Espainian bizi ez diren atzerritarrek parte hartzeko aukera izanen dute, betiere parte hartzeko betekizunak betetzen badituzte. Kasu horretan, kontratazioa egin ahal izateko atzerritartasunari buruzko legeek eskatzen dituzten baimenak lortu beharko dituzte.

b) 18 urte baino gehiago izatea, eta erretiro adina betea ez izatea.

c) Gutxienez ere 300 ECTS dituen Graduak irakaskuntza titulazio ofiziala, Masterra, Lizentziatura, Arkitektura, Ingeniaritza edo hezkuntza alorrean eskuduna den ministerioak ezarri duenaren arabera, Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko (MECES) 3. mailari (masterrari) dagozkion titulazioak.

Atzerrian erdietsitako titulazioak badira, izangaiek eskuan izan beharko du homologazioaren egiaztagiria, edo baliokidetzearena, hala badagokio. Betekizun hori ez zaie aplikatuko lanbide arautuen eremuan prestakuntza profesionalaren aitortpena Europako Erkidegoko Zuzenbidearen xedapenen babesean erdietsi duten izangaiei.

d) Ingeleseko C1 mailaren ziurtagiria, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera (HEEEB).

Esteka honetan ageri da CRUEren Ingeleseko Hizkuntza Mahaiak onetsitako taula, hizkuntza-maila egiaztatzeko onartuko diren tituluen zerrenda duena:

<https://www.crue.org/wp-content/uploads/2020/02/Certificados-para-la-acreditaci%C3%B3n-de-niveles-de-ingl%C3%A9s.pdf>

e) Deialdiko xede diren lanpostuak betetzea galarazten duen gaixotasunik edo muga fisikorik edo psikikorik ez edukitzea.

Diziplinako espediente baten ondorioz edozein administrazio publikotako zerbitzutik baztertua ez izatea, eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua ez egotea epai irmo baten bidez.

2.2.- Aurreko arauetan ezarri diren baldintzak eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean bete beharko dira, eta kontratazioa egin arte beteko dira.

3.- ESKAERAK

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun balioudun igaro ondoren bukatuko da, deialdi hau **Nafarroako Aldizkari Ofizialean** argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hautaketa-prozesu honetarako **inskripzioa telematikoki** egin beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren goitza elektronikoaren bidez, helbide honetan:

<https://sedeelectronica.unavarra.es/sede/zerbitzu-katalogoa/guztiak/ikertzaileen-hautaprobak>

Lehenik, “**Hasi tramitea**” botoia sakatu behar da.

“**Erantsi fitxategiak**” eremuan, dokumentu hauek erantsi beharko dira lanpostu kategoria bakoitzerako:

- Parte hartzeko eskabidea.
- Nortasun Agiri Nazionalaren, AIZren edo pasaportearen fotokopia.
- Deialdian eskatzen den tituluaren fotokopia.
- Espediente akademikoaren fotokopia, batez besteko nota zehaztuta.
- Ingeleseko C1 mailaren ziurtagiria.
- Curriculum vitae, norberak egoki jotzen dituen merezimenduen egiaztagiriekkin batera.

Parte hartzeko eskabide eredu esteka honetan dago:

<http://www2.unavarra.es/gesadj/registroGeneral/instancias/recursos-humanos/contratacion-personal-investigador.pdf>

4.- IZANGAIEN ONARPENA

4.1.- Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da, baztertua izateko arrazoia esanez, baztertuen kasuan. Izangai bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

4.2.- Hirugarren oinarriak aipatzen dituen dokumentuak ez aurkezteagatik behin-behinean baztertzea galarazi gabe, eskaera epez kanpo aurkeztea edo lehiaketaren bidez lortu nahi den lanpostua betetzeko bete behar diren baldintzak ez betetzea baztertzeko arrazoiak izanen dira, eta, gainera, horiek ezin izanen dira zuzendu.

4.3.- Izangai baztertuek edo zerrendan azaldu ez direnek zilegi dute erreklamazioa egitea eta, akatsen bat badago, akatsak zuzentzea, behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo 5 egun balioduneko epean. Ezartzen den epean baztertuak izateko arrazoiak konpontzen ez duten izangaiak behin betiko baztertuko dira, eta ez dute probarik egingen.

4.4.- Eskaerak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

4.5.- Izangaiak hautaketa-prozesuan onartuen zerrendan egoteak edota 6.2 oinarriak aipatu hautaketa-prozesua gainditu dutenen zerrendan egoteak ez du ekarriko inoiz ere unibertsitateak aitortzea betetzen dituztela deialdiko oinarrietan eskatu diren baldintza orokorrak edo bereziak. Kontratatzeko deitzen dituzten izangaiek ziurtatu eta egiaztatu beharko dituzte horiek, jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko baitute kontratua sinatzen dutenean.

4.6.- Parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioarekin alderaturik jatorrizko dokumentazioa okerra edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, kontratua sinatzeko ezintasuna eta kontratazio zerrendatik baztertzea ekarriko du, interesdunak berak sinatuko duen erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorritz.

5.- HAUTAKETA-PROZESUA

Izangaien merezimenduak baloratuko dira, aurkeztutako dokumentazioarekin bat etorritz eta I. eranskineko baremoaren arabera.

Izangaiek eskabideak aurkezteko epea bukatzean dituzten merezimenduak bakarrik baloratuko dira, eta gero lortutakoak ez dira kontuan hartuko. Hautapen Batzordeak inola ere ez du onartuko izangaiek alegatu ez duten edo agirien bidez frogatu ez duten merezimendurik, eta ezin izanen du apartatu bakoitzean adierazitako gehieneko puntuazioa baino handiagorik eman.

Adierazten diren merezimendu guztiak zuzenbidean baliozkoa den edozein baliabideren bidez frogatu behar dira.

Hautapen Batzordeko kide bakoitzak baloratuko ditu izangaien merezimenduak. Azken puntuazioa izangai bakoitzari emandako puntuazioen batezbestekoa izanen da.

6.- HAUTAKETA-PROZESUAREN EBAZPENA

6.1.- Izangaiek aurkeztutako merezimenduen balorazioa amaitu eta gero, Hautapen Batzordeak Ikerketako errektoreordeari bidaliko dio hautaketa-prozesua gainditu duten izangaiei zerrenda, lortutako puntuazioekin.

6.2.- Ikerketako errektoreordeak ebazpena emanen du hautaketa-prozesua gainditu duten izangaiei zerrenda onesteko, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoa argitaratuko da.

6.3.- Deialdi honetan sortzen den kontratazio zerrendak 3 urteko indarraldia edukiko du argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Indarrean dagoen bitartean, kategoria bera eta ia eginkizun berak dituzten langileak kontratatzeko premia sortzen denean ere erabiliko da kontratazio zerrenda hori, proiektu, kontratu, hitzarmen edo katedra baterako edo institutuko edo ikerketa-taldeko funtsetarako izan, betiere hurrenkera ordena errespetatuz.

6.4.- Deialdi honen ondoriozko kontratazio zerrendan egonik kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste edozein lanpostutarako kontraturik eskainiko. Dena dela, eskainiko zaie baldin eta kontratua bukatzeko 15 egun edo gutxiago gelditzen badira.

7.- HAUTAPEN BATZORDEA

Batzordeburua: Katrin Simón Elorz doktorea, unibertsitateko irakasle titularra, Enpresen Kudeaketa Sailari atxikia, Ikerketako errektoreordeak delegatuta.

Idazkaria: Martín Larraza Quintana doktorea, unibertsitateko katedraduna, Enpresen Kudeaketa Sailari atxikia.

Batzordekidea: Mónica Cortiñas Ugalde doktorea, unibertsitateko irakasle titularra, Enpresen Kudeaketa Sailari atxikia.

HAUTAPEN BATZORDE ORDEZKOA

Batzordeburua: María Jesús Campión Arrastia doktorea, unibertsitateko irakasle titularra, Estatistika, Informatika eta Matematika Sailari atxikia.

Idazkaria: Emilio Domínguez Irastorza doktorea, unibertsitateko irakasle titularra, Ekonomia Sailari atxikia.

Batzordekidea: Nuria Oses Eraso doktorea, unibertsitateko irakasle titularra, Ekonomia Sailari atxikia.

Hautapen Batzordearen jarduerak, une oro, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezartzen dutenaren arabera gauzatuko dira. Jakinarazpenak egiteko eta bestelako gorabeheretarako, Hautapen Batzordearen egoitza Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazioko eta Kudeaketako eraikina izanen da.

8.- DATU PERTSONALEN BABESA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak langileen kudeaketaren arloan antolatutako prozesuetan parte hartzeak interesdunen datuak tratatzea ekarriko du berekin. Datu horien tratamenduaren arduraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoa da.

Datuen tratamendua aplikatzekoa zaion araudiari jarraikiz eginen da, hots, Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorrari eta Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz. <http://www.unavarra.es> webgunean argitaratutako Tratamendu Jardueren Erregistroan kontsulta daiteke nola eginen den tratamendu hori, "GIZA BALIABIDEAK" atalean.

Tratatuko diren datuak batez ere hautaketa-prozesuetako izangaienak eta NUPeko langileenak izanen dira; hauek hain zuzen ere: izena, deiturak, NANA, datu akademikoak eta profesionalak eta, beharrezkoa denean, bankuko datuak eta Gizarte Segurantzakoak, edo ondoren deskribatzen den xedea betetzeko beharrezkoak direnak.

Datuen tratamendua justifikatzen duen xedea hau da: hautaketa-prozedurak, mugikortasunekoak, egoera administratiboak, ziurtagiriak, edo Giza Baliabideen arloan NUPen eskumenekoak diren beste batzuk tramitatzea.

Xede horrek interes publikoa edo botere publikoa legitimatzen du, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua ezartzen duen bezala. Hauek dira oinarri juridikoak, langileei buruzko beste arau batzuen artean: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2015eko urriaren 30ekoa, eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzura dauden Langileen Estatutuaren testuategina onesten duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, 1993ko abuztuaren 30ekoa.

Datuak tratatzeko jardueri dagokienez, interesdunek eskubidea dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, haiei kontra egiteko eta transferitzeko. Horretarako, mezu bat bidali behar dute delegado.protecciondatos@unavarra.es helbidera, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 11. artikulutik 18. artikulura bitartekoei jarraikiz. Desadostasunen bat izanez gero, Datuak Babesteko Espainiar Agentziara jo dezakete, <https://www.aepd.es/> domeinuaren bidez.

9.- ERREKURTSOAK

Hautapen Batzordeak erabakitzen dituen egintzen aurka, zilegi da gora jotzeko errekurtsoa jartzea, errektoreari zuzendua, hilabeteko epean, aurkaratzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Deialdi honen aurka, haren oinarrien aurka eta beroriek aplikatzeko egintzen aurka, Hautapen Batzordeak egindakoak ez direnean, zilegi da ondoko errekurtsuetako bat jartzea, arau indardunekin bat etorritz:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa errektorearen aurrean, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aurrera.

I. ERANSKINA

Ikertzaileak hautatzeko baremoa

ERABILIKO DEN BAREMOA ETA/EDO EGINEN DIREN PROBAK		
1. APARTATUA: Espediente akademikoa	Puntuak	50
<p>Izangaiaren espediente akademikoa bere batez besteko notari dagokion proportzioan baloratuko da, gehienez ere 40 punturekin. Gradu eta masterreko titulazioetako espedientea baloratuko da. Horretarako, ponderazio-faktore hau erabiliko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ponderazioa 1,25: enpresen kudeaketaren, ekonomiaren, merkatuen ikerketaren, proiektuen zuzendaritzaren eta datuen zientziaren arloetako titulazioak. - Ponderazioa 1: psikologiaren, soziologiaren, industria-ingeniaritzaren, ingeniaritza informatikoaren eta nekazaritzako elikagaien ingeniaritzaren arloetako titulazioak. - Ponderazioa 0,8: beste titulazio batzuk. 		
2. APARTATUA: Ikerketako esperientzia, I+G-koa eta esperientzia profesionala	Puntuak	20
<p>A) Europar ikerketa-proiektuetan edo nazioarteko beste proiektu batzuetan parte hartu izana: 4 puntu gehienez ere sei hileko, proiektu motaren arabera. Aldi laburrageoi puntuazio proportzionala emanen zaie. 15 puntu gehienez ere.</p> <p>B) Argitalpen zientifikoak nazioarteko eta Espainiako aldizkarietan, komunikazioak edo posterrak Espainiako edo nazioarteko kongresuetan, parte-hartzea lehia-deialdien ikerketa-proiektuetan: 1,5 puntu ekarpen bakoitzeko. 7,5 puntu gehienez ere.</p> <p>C) Esperientzia profesionala proiektuen kudeaketaren arloan: 4 puntu gehienez ere sei hileko, proiektuen garrantziaren arabera. Aldi laburrageoi puntuazio proportzionala emanen zaie. 15 puntu gehienez ere.</p> <p>D) Ikerketako eta lankidetzako bekak izatea unibertsitateko sailtan edo proiektuaren gaiarekin zerikusia duten I+G zentroetan: 1,5 puntu sei hileko. Aldi laburrageoi puntuazio proportzionala emanen zaie. 5 puntu gehienez ere.</p> <p>Apartatu honetako puntuazioen batura 20 puntutik gorakoa bada, 20 puntuko balioa esleituko zaio.</p>		
3. APARTATUA: Proiektuaren gairako prestakuntza osagarria	Puntuak	20
<p>A) Proiekturako profilarekin lotura duten ezagupenak eta prestakuntza espezifikoki baloratuko dira: 10 puntu gehienez ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa analizatzeko teknikei buruzko prestakuntza osagarria - Analisi estatistikorako tresnak - 		

- Eduki digitala eta weberako edukia garatzeko tresnak
 B) Hizkuntzak: Ingelesa: C2 = 5 puntu; Euskara: C2 = 5 puntu, C1 = 3 puntu, B2 = 2 puntu
 C) Bestelako merezimenduak: batzordeak espezializazio ikastaroak, bekak, sariak eta lehiakideak aurkezten dituen beste edozein merezimendu baloratuko ditu, betiere aurreko ataletan aintzat hartu ez badira: 5 puntu gehienez ere.
 Apartatu honetako puntuazioen batura 20 puntutik gorakoa bada, 20 puntuko balioa esleituko zaio.

4. APARTATUA: Aurkezpen-bideoa	Puntuak	5
Izangaiek, dokumentazioarekin batera, aurkezpen-bideo bat eginen dute, ingelesez. Bideo horrek 3 minutu iraunen du gehienez ere, eta, bertan, beren profil profesionala aurkeztuko dute, bai eta azaldu ere zergatik diren egokiak proiektuan garatu beharreko jardueretarako. Bideo horri 5 puntu emanen zaizkio, erakutsitako gaitasun digitalen eta ahozko adierazpenerako gaitasunen arabera. Atal honetan, 0 puntu emanen zaizkio bideorik aurkezten ez duen izangaiari.		
5. APARTATUA: Elkarrizketa pertsonala	Puntuak	5
Balorazio Batzordeko kideek elkarrizketa bat eginen diete aurreko apartuetan lortutako kalifikazioak batuta puntuazio handiena duten hiru izangaiei. Elkarrizketan, izangaiek kontratuaren xedea den gaiari buruz alde aurretik dituen ezagutzak eta esperientziak baloratuko dira. Norbaiti elkarrizketarako hots egiten badiote eta ez bada aurkezten, prozesutik kanpo geldituko da.		

Hautaketa-prozesua gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa 50 puntu da.

Hautaprobeen azken emaitzan gerta daitezkeen berdinketak **2. APARTATUAN** puntuazio handiena ateratzen dutenen alde ebatziko dira. Berdinketarik baldin badago, **1. APARTATUAN** puntuazio handiena lortzen dutenen alde. Berdinketak jarraitzen badu, zozketaz erabakiko da.